

BILBAO METROPOLI-30

ARTISTEN DEIALDIA

XEDEA

Deialdi honek “Bilbao Metropolitarra. Etorkizunera begira” Gogoeta Estrategikoa garatzen parte hartu nahi duen artista edo sortzaile bat bilatzen du. Gutxienez planteatutako zortzi bileretatik bitara joan behar du. Parte-hartze horretan jasotakotik, errepresentazio artistikoko proposamen bat egin beharko du, talde bakoitzaren agertokien edukia irudikatzeko, egokien d(ir)en formatu(et)an.

PARTE-HARTZAILEAK

Deialdi honetan EHuko Arte Ederretako Fakultateko graduako, masterreko eta doktoratuko ikasleek parte hartu ahal izango dute, baita ikasketak 2015. urtearen ostean amaitutako ikasle ohiek ere. Gogoetaren filosofia ulertzen duten proiektu berritzaileak dituzten artistak bilatuko dira. Sormen garaikidearen prozesu izaera agerian uzten duten artistak baloratuko dira.

LAN PROZESUA

Proiektua ondorengo lan prozesuetan garatuko da:

1. AURRETIKO PRESTAKUNTZA. Aukeratu ondoren, hautagaiaren eta Bilbao Metropoli-30ren Gogoetaren koordinazio taldearen arteko saio bat egingo da, proiektuaren helburuak partekatzeko.
2. PROPOSAMENAREN AURKEZPENA. 2019ko urtarrila eta otsaila bitartean, artistak zortzi bileretatik bitan hartuko du parte, gutxienez, eta Bilbao Metropoli-30ekin kolaboratuko du artearen ikuspegitik. Zehaztutako estrategiaren errepresentazio artistikoko proposamen bat sortuko du, ideiagintza prozesu baten bidez, eta proposamen hori Bilbao Metropoli-30era bidali beharko du 2019ko otsailaren 15a baino lehen.

PRESTAZIOAK/DIRU-HORNIDURA

Deialdiaren onuraduna den artistak soldata partida bat eta ekoizpen gastuetarako aurrekontu partida bat izango du. Soldaten partida 600,00 eurokoa da (eta, hala

badagokio, dagozkion atxikipenak gehituko zaizkio). Obra gauzatzeko esleipen ekonomikoa aurkeztutako aurrekontuaren arabera baloratuko da.

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Deialdi honetan aurkezteak ondorengo konpromisoak onartzea dakar:

- Lana prozesuaren markoari eta zehaztutako estrategiaren edukiari egokitzea.
- Proposamena horretarako zehaztutako epean garatzea.
- Obra sortzeko, materialen ekoizpenaren eta eskuratzearen buru izatea, Bilbao Metropoli-30ekin koordinatuta.

ESKARIAK AURKEZTEA

Deialdia 2018ko abenduaren 21etik 2019ko urtarrilaren 15era arte egongo da irekita. Eskaria egiteko ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- Betetako eskari fitxa (I. eranskina).
- Artistaren dossierra eta *statement* delakoa.
- Deialdian parte-hartzeko motibazioa (geh. 300 hitz).

Proposamenak dokumentu digital batean bidaliko dira, PDFn edo beste testu dokumentu batean, helbide elektronikoa honetara: slanda@bm30.eus. Zalantzak eta galderak argitzeko, helbide elektronikoa horretara idatzi edo telefono honetara deitu: 944158685.

BALORAZIO ETA EBAZPEN IRIZPIDEAK

Hautapen Batzorde batek baloratuko ditu aurkeztutako balorazioak, eta honela osatuko da:

Edurne González Ibáñez, UPV/EHUko Arte Ederretako Fakultateko Unibertsitate Hedapeneko Dekanordea.

UPV/EHUko Arte Ederretako Fakultateko irakasle bat.

Ainhoa Irazu, Bilbao Metropoli-30

Saioa Landa, Bilbao Metropoli-30

ORDAINKETA MODUA

Soldatei dagokien partida 2 fasetan ordainduko da:

- %50 prozesuaren hasieran, ezarritako bileretara joan aurretik.
- Beste %50 proposamena aurkeztean.

INFORMAZIO OSAGARRIA

1991ko maiatzaren 9an sortu zen Bilbao Metropoli-30, Bilbao Metropolitarrak Birbizteko Elkartea, Birgaitzeko Plana amaitzeko eta lehentasunezko estrategiak martxan jartzeko ardura zuzena hartu zuena.

Elkartea Sustapen eta Ikerketa Elkarte gisa osatu zen, Bilbo Metropolitarrak birgaitzeko helburuz. Bilbo Metropolitarrak Behe Nerbioiko hiri aglomerazioa da, lurralde muga zehatzik gabeko errealitate ekonomiko eta sozial bezala definitutakoa, haren existentzia eskualde eta nazioarte maila proiektatzen delarik.

Elkartea “Onura Publikoko Erakunde” gisa kalifikatu zuen Eusko Jaurlaritzak 1992ko ekainaren 9an, bere Estatutuetan zehaztutakoari jarraikiz, ulertu zuelako bere jardueren bidez Euskadiko interes orokorraren sustapenean laguntzen duela, batez ere, Bilboko metropoli eremuko kolektibitatea eta haren eragineko eremua Elkartearen jardueretatik sor daitezkeen onuren hartzaile gisa hartzeagatik.

AURREKARIAK

Bilbao Metropoli-30en XXV. urteurrena dela-eta, eta epe luzea izateko arrazoi eta helburu nagusia denez, Elkarteak 2016ko maiatzaren 9an, elkarte ehuna kontuan hartuz, Gogoeta Estrategikoko prozesu bat egin ondoren ateratako ondorioak aurkeztu zituen, Bilbao Metropolitarrak 2035. Etorkizunera begira Gogoeta Estrategikoa izenarekin. Bertan, hau zen ETORKIZUNERAKO BEGIRADA:

“Euskal gizartea integratzailea izan dadin nahi dugu, eta gizarte horrek baldintza egokiak sortzea, gu, hiritar gisa, harro senti gaitezen lurralde honetakoak izateaz; harro egotea, pertsona gisa ditugun beharrak asetzeko gai garelako, kalitate handiarekin, eta onartzeko moduko kostuarekin. Eta hori guztia, zintzotasunean eta elkartasunean oinarritutako etika humanistiko baten barruan”.

Deskribatutako etorkizunerako begirada osatzeko, gogoeta estrategiko horretan oinarritzko elementu gisa definitutako gako estrategikoen barruko lan-ildoen gaineko

parte-hartze prozesu bat jarri da martxan, era partekatuan gogoeta egiteko eta aldagai gako bakoitzaren barruan proiektu zehatzak proposatzeko. Horretarako, hainbat talde sortu dira, eragile instituzional, sozioekonomiko eta akademiko eta gizarte zibileko ordezkari direnez osatuak; guztiek ere harreman zuzena dute taldeak lantzen duen arloarekin. Talde horiek landu beharreko gaiak hauek dira:

- ✓ Ongizatea elkarrekin sortzea
- ✓ *Sustainable future*
- ✓ Interkonektatutakoa eta adimenduna den lurralde metropolitarra
- ✓ Enplegua sortzen duten ekonomia berriak
- ✓ Ibaia eta sareak
- ✓ Partekatutako gobernantza espazio metropolitarretan
- ✓ Komunitatea
- ✓ Nortasuna eta hiria

METODOLOGIA

Horietako bakoitza hiru aldiz bilduko da, 2018ko azarotik 2019ko martxora arte, estrategia bat definitzeko. Horretarako, Agertokiak aztertzeke metodologia erabiliko du, ikuspegiari begira hiriak egin beharreko ibilbideak ikusteko aukera ematen duena.

Lehenengo bileran, Gogoeta Estrategikoan zehaztutako ikuspegiarekin lotutako galdera kritikoa egingo da. Bigarrenean, aldaketarako motore nagusiak eta egindako galdera kritikoa eragina izan dezaketen zalantza kritikoak identifikatuko dira, eta, sintesi prozesu baten bidez, bi joera edo indize nagusi zehaztuko dira; horiek, bi posizio ezberdinetan, matrize bat sortuko dute, eta etorkizunerako lau agertoki posible zehazteko oinarri izango da.

Talde bakoitzaren hirugarren eta azken bileran -2019ko urtariletik martxora egingo direnak- agertoki bakoitzaren deskribapenean sakonduko da, dituen inplikazioetan eta efektuetan, eta etorkizunerako erronkei begira kokapen hobea lortzeko estrategia bat definituko da.

I. ERANSKINA.- ESKARIAREN FITXA

ESKATZAILEAREN DATUAK

- ✓ Izen-abizenak:
- ✓ Helbidea (kalea, hiria eta posta kodea):
- ✓ Helbide elektronikoa:
- ✓ Telefonoa:
- ✓ Diziplina artistikoa:
- ✓ Eskatzailearen web orrialdea edo bloga (izatekotan):

ATXIKI DIREN AGIRIAK

- Portfolioa eta ibilbidearen deskribapena.
- Parte hartzeko motibazio gutuna eta aurreikusitako metodologia.

Data:

Sinadura: